



**9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituena. (EAO 2017 azaroaren 9koa)**

**Azken xedapenetako hamargarrena.** Abenduaren 28ko 37/1992 Legea, Balio Erantsiaren gaineko Zergarena, aldatzea. Aldaketa hauek sartzen dira abenduaren 28ko 37/1992 Legean, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoan (indarrean 2017ko azaroaren 10etik aurrera).

**Bat.** 7. artikulua 8. zenbakia honela geratzen da idatzita:

«8.a A) Administrazio publikoek eta zenbaki honetako C) eta D) apartatuetan aipatzen diren entitateek kontraprestaziorik gabe edo zerga kontraprestazio baten bitartez zuzenean egiten dituzten ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak.

B) Ondorio horietarako, hauek hartuko dira administrazio publikotzat:

a) Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia erkidegoetako administrazioak eta Toki Administrazioa osatzen duten entitateak.

b) Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak.

c) Organismo autonomoak, unibertsitate publikoak eta Estatuko agentziak.

d) Berezko nortasun juridikoa duen zuzenbide publikoko edozein entitate, aurrekoen mendekoa, baldin eta, independentzia funtzionala edo legeak aitortutako autonomia berezia izanda, sektore edo jarduera jakin bat kanpotik arautzeko edo kontrolatzeko eginkizunak esleituta badauzka.

Ez dira administrazio publikotzat joko ez Estatuko entitate publiko enpresarialak, ez eta autonomia erkidegoen zein toki entitate mendekoa izanik, haien pareko diren organismoak ere.

C) Sektore publikoko ente, organismo eta entitateek mandatuen indarrez gautzen dituzten zerbitzuak ez dira egongo zergari lotuta, baldin eta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 32. artikuluan ezarritakoari jarraituz, ente, organismo eta entitate horiek mandatua agindu duen botere adjudikatzailaren berezko bitarteko pertsonifikatua badira aipatutako 32. artikuluan jasotako terminoetan.

D) Orobat, ez dira egongo zergari lotuta sektore publikoko edozein ente, organismo edo entitate egindako zerbitzuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 3.1 artikuluan aipatutako terminoetan, zerbitzu horiek haien nagusi diren administrazio publikoari edo haien menpeko beste bati egiten zaizkienean, baldin eta administrazio publiko horiek haien titulartasun osoa badute.

E) Aurreko C) eta D) apartatuetan aipatutako entitateen arteko zerbitzuak ere zergari lotu gabe egongo dira, baldin eta entitate horiek Administrazio Publiko berberaren menpeko entitate badira erabat.

F) Edonola ere, sektore publikoko administrazio, ente, organismo eta entitateek egiten dituzten ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak zergari lotuta egongo dira, jarraian aipatzen diren jarduerak egitean burutzen direnean:

a) Telekomunikazioak.

b) Ura, gasa, beroa, hotza, energia elektrikoa eta gainerako energia modalitateak banatzea.

c) Pertsonak eta ondasunak garraiatzea.

d) Portu eta aireportuetako zerbitzuak eta trenbide azpiegiturak ustiatzea, hurrengo 9. zenbakian ez-zergapetze kasuetatik kanpo geratzen diren emakidak eta baimenak barne.

e) Produktuak eskuratu, fabrikatu edo eraldatzea, ondoren eskualdatzeko.

f) Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuak esku hartzea beraien merkatua erregulatzeko.

g) Azokak eta merkataritza erakusketak ustiatzea.

h) Produktuak biltegitatu eta gordailutzea.

i) Publizitate bulego komertzialen jarduerak.

j) Enpresa, ekonomatu, kooperatiba eta antzeko establezimenduetako kantinak eta jantokiak ustiatzea.

k) Bidaia agentzienak.

l) Irrati eta telebistako ente publikoen merkataritza jarduerak, haien instalazioen erabilera lagatzeari buruzkoak barne.

m) Hiltegiko jarduerak.»



**Bi.** 78. artikulua 2. apartatu 3. zenbakia honela geratzen da idatzita:

«78. Bi. 3.a Zergapetutako eragiketen prezioari zuzenean lotutako diru-laguntzak.

Zergapetutako eragiketen prezioari zuzenean lotutakotzat joko dira entregatutako unitate kopuruaren arabera edo egindako zerbitzuen bolumenaren arabera ezarritako diru-laguntzak, betiere eragiketa egin aurretik finkatzen badira.

Alabaina, ez dira joko prezioari lotutako diru-laguntzat eta ez dira inoiz sartuko artikulua honen lehen apartatuan aipatzen den kontraprestazioaren zenbatekoan, administrazio publikoek egiten dituzten diru ekarpenak, izena edozein dutela ere, ondoko hau finantzatzeko egiten badira:

a) Zerbitzu publikoen kudeaketa edo kulturaren sustapena, lehiakortasunaren distortsio nabarmenik ez dagoenean, kudeatzeko era edozein dela ere.

b) Interes orokorreko jarduerak, haien hartzaileak identifikatu ezin daitezkeenean eta ezein kontraprestaziorik ordaintzen ez dutenean.»

**Hiru.** 93. artikulua 5. apartatua honela geratzen da idatzita:

«93. Bost. Subjektu pasibo batek batera egiten baditu zergapetutako eragiketak eta lege honetako 7.8 artikuluan xedatutakoaren aplikazioz zergapetu gabeak, eragiketa batzuk eta besteak batera gauzatzeko eskuratutako ondasunengatik eta zerbitzuengatik jasandako kuotak kendu ahal izango ditu, zergapetutako eragiketak garatzeko erabilitako ondasunei eta zerbitzuei dagozkien kuotak arrazoizko irizpide homogeen baten arabera egotziz; ondorio horietarako, lege honetako 94.bat.2. artikulua aipatutako eragiketak ere sartuko dira. Irizpide horri denboran eutsi beharko zaio, non eta arrazoizko kausengatik hura ez den aldatu behar.

Ondorio horietarako, aintzat hartu ahal izango da zer proportzio adierazten duen ondasun entrega eta zerbitzu prestazio zergapetuengatik urte natural bakoitzerako zehaztutako zenbateko osoak, balio erantsiaren gaineko zerga kanpoan utzita, subjektu pasiboak bere jardura multzo osoagatik urte natural bakoitzean lortzen dituen diru-sarrerekiko.

Irizpide hori aplikatuta ateratzen den kalkulua behin-behinean zehaztu ahal izango da, aurreko urte naturaleko datuen arabera, urte bakoitzaren amaierako erregularizazioa galarazi gabe.

Aurrekoa hala izanik ere, lege honetako 7.8 artikuluan aipatutako eragiketa zergapetu gabeak egiteko bakarrik erabiltzen diren ondasun edo zerbitzuak eskuratu edo inportatzeagatik jasandako edo ordaindutako kuotak ez dira kengarriak izango inolako proportzioan.

Apartatu honetan ezarritako kenkariak lege honen VIII. tituluko I. kapitulu jasotako baldintza eta beharkizunetara ere egokituko dira, eta, bereziki, hainbanaketa erregelari buruzkoetara.

Apartatu honetan jasotakoa ez zaie aplikatuko zerbitzu publikoak kudeatzeko jardueri, lege honen 78.Bi.3 artikuluko a) letran ezarritako baldintzetan.»

**Lau.** Ezabatzen da 78. artikulua 4. zenbakia.